

# **BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ\***

[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)

317n. zenbakia

2006 maiatza



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura

**LAGUNTZAILLE**

# NOR-BERE ERABAKIA'ren JABETASUNA

(Autodeterminación)

Arrituta geratzen da bat, gaurko lez 2006'an Epaila'ren 2'an, DEIA egunkaria irakurterakoan, "ZAPATERO REITERA QUE EL DERECHO DE AUTODETERMINACIÓN NO EXISTE" ikusi ezker.

Argi erakusten dabe esan orreik, espatakaz eta beti gudaren keiñu dariola buru gaiñetan daukagun Laterri au ez dala eskubidekoa.

Eta argiago, Laterriak eskubide orreik eukiteko besteari edo aurrekoari, kendu egin bear dautsozelako. Mundu onen Lege-Fisikoa dalako ori. Besteari kentzen ez badautzasuz, zuk ezin-dozulako euki.

Noren eskubideak dira orreik?

Mundu onetara jaioten garanean, "NOR-BERE ERABAKIA'ren JABETASU-NEZKO ESKUBIDEAKAZ JAIOTEN GARA". JAINKOA'k, ARDURADUN IZATEKO BIALTZEN GAITULAKO MUNDU ONETARA.

ARDURA ORREITAN DATOZ OIÑARRITUTA ESKUBIDEAK.

Ez dago iñungo esku-bidean, Laterriak erabiltzen dabezan legeak, euren egokitasunera erabiltzen dabezan erataraz erabiltzerik.

Eta gogapen orreik dira, Mundu au anka gora ipinten dabenak. Berezko arrazoiaren ardurak, euki bear daben lekutik ataraten diranean.

Gaur, Laterri onen gizarte geiena eta gazteak batez-be, arduragabean agertzen dirala esaten dabe (ez da izango jazarraldia?). Eta orregaz konturatzeko, ikusi baiño ez da besterik egin bear, legeak zelango naiaren erataraz erabiltzen diran.

Zergaitik bestela, lege geienak berezkotasunezkoak izanda eta gure ezagurean dagonezkero gure berezko arduragaz betetako, laterriak euren lege-bidez agindu bear dausku bete daiguzan?

Or! zeozer, bere lekutik kanpoz dago! Eta ez da urrin joan bear, zergaitik dan jakiteko.

Gizakia beren babeserako, Munduaren berezkotasunean: senitu, auzotu ta erritu egiten da. Bakoitzaren Nortasuna, mailla guzti orreitan Nortasunduta. Bizitzaren irakatsiak oituratu egiten diralako gizarte arlo orreitan, sendi baten maitasunezko sendimendua artuz.

Ori da Euskal-Aberria ta Mundu onen Erri guztiena be bai. Eta elburu orreik lortzeko, gauzak lotsagizun aundiz, itzarmeneko ekintzan egin bear dira, bizitzaren legeak ardura orreitan alegintzen dauskulako.

Zer da..... lekutik kanpo dauana?

Laterri oneik, zalantzarik gabe. Daukien izaera, merkataritzazko batzangotasunean, menperatzaillaren agin-

du gurean eta sasi-jainkotasunean bizi gura daben norke-rian eginda dagozelako.

Eta orren esan naia: "Berezko legearen eskubidetik kanpo dabizela" eta "oldozmen edo gogapen ori aurrera eroateko, guzur utsean ibili bear dirala" da.

Orregaitik dira ain barregarriak alde-batetik. Bestetik baiña, ain zori-txar ta neketsuak gure elkar-bizitzarako.

Sozialistak, esan leike, menperatzaillaren aurka, berezkotasuna babesteko jaio zirala.

Eta eurek..., berezkotasunean sortzen diran Nortasunaren ardurak: Nortasunak kontuan euki gabe (ciudadanos de Europa); Nor-beren eskubideko erabakian (autodeterminación inexistente), Euskal-izaeraren gain..., beste gauza bat izan (español), eta abar?

Iparra galduta, eurak be ez dakie nundik-nora dabizen.

Eta nora-ezeko bide orreitan eskomatarrazak alkartuta, ez ete dabe egingo Espartarrak egite eben antzera..., jaioten ziran umeetan, akatsen bat ikusita amiltegitik bota... Au, Euskaldun jaio dalako amiltegitira?

Premiñaz beterik dabiz bizi onetan. Eta ez da egoera egokiena edo ez dator adostasunean, gauzak egiteko lege-bizi onen zentzuak eskatzen dauan lasaitasunagaz.

Ariñeketazko ekintza orreik berez ekarten dabena, ase-tugabeko egoerak dira, noraezean eta Iparra galduta, ez diralako lortzen ELBURUA'k.

## EUSKALERRIA:

Euskalerrria, gaur iñoz baiño geiago, egian bizi bearean dago, Euskaldunak eta bertan bizi garenok, Mundu onek oiñarrituta daukazan askatasun eta zentzunezko lege inguruan sendotu gaitez. Or! oiñarritzen diralako maitasunezko indarrak, askatasunaren gorapenak lortzeko.

Bakarrik ez, beste berezko erritarrak zor dautsaguzan lotsagizunezko laguntza euren askatasunak lortu dagiazan. Gero ta geiago izaten ba-gara NOR-BERE ERABAKIA'ren JABETASUNEZKO ASKATASUNERA igoten garenok, ariñago lortuko dalako Mundu onen gai ta gizartea orekan ezartzea.

Eta danon indarrak alkartu daitez, gauza guzti orreik, premiñazko estutasun barik eta zuurtasun aundiz, jakinda zelako jokoan gabiltzan.

"EUSKADI'k, MEREZI DAU, BERE SEME-ALABAK ZUURTASUN AUNDIZ ALEGINDU DAITEZAN, BERAK BEAR DAUAN ASKATASUNA LORTZEKO".

**ATUTXA'tar Paul**

Zornotza'n 2006'an epaila'ren 2'an

## 2.- MOISES EJIPTO'N

Jakob edo Israel'ek artu ebazan Abraam'en agintzariak, baiña Jakob'en amabi semeak Jose euren arteko zala, anaia saldu egin eben eta au Ejipto'ra eroan eben ismaeldar batzuk. Ejipto'n gizon aundia izatea lortu eban gau-amesen igarle zalako. Zazpi urte ugarietako uzta onak batu eta urrengo zazpi gose-urteak asetzea lortu eban.

Gose-urte orreitan bere amaika anaiak joan jakozan gari-billa. Gero Aita be bai. Eta an asi ziran bizi izaten eta ugaritzen, antxe sortu zan Israel erri aundia.

200 urte-inguru igaro-ondoren, lanik gogorrenak egiten aspertu ziran israeldarrak eta Jainkoari oiuka bizi ziran. Giro orretan daukagu Moises'en aurrean teofanía eta Jainkoa agertzea:

- Moises! Moises!
- Emen nago!
- Entzun dot Ejipto'tik nire erriaren oiua ta garrazia..

Zoaz eta atera morroitzatik nire Erria.

Amar ondapenak jazo ziran ondoren, Faraon'ek urte-teko baimena emon egian, eta lortu eban Moises'ek erria Ejipto'tik ateratea. Azkenengo gaua gaurik larriena izan zan, aingeru iltzailleak egiptoarren semerik zarrenak ilgo ebazan gaua.

Baiña israeldarren semeak non egozan aigeruari adierazteko, oneik erail ez egizan, gau orretan izan zan pazko-gaua. Sendi bakoitxak pazko-bildotsa il eban eta onen odolagaz ate-ageak gorritu ezaugarri lez.

Eta pazko bildotsa jan eben: azi-bako ogiakaz, orretarako astirik ez egoalako, oiñetakoak jantzita bidea egiteko gertu egon daitezkan,soin-gaineko jantzia garrian lotuta bereala urteteko... eta goiz-aldian urteteko baimena etorri jaken eta urten be bai. Bildotsa izan jaken askatzaille, Kristo'ren irudi lez.

Itxas Gorria zelan igaroko ete eben larri egozan, baiña Moises'ek bere makillea eskuan ebala urak erdi bi egin

ebazan eta eurak buzti barik igaro ziran. Atzetik sartu ziran ejiptoarrak be, baiña urak alkartu ziran eta guztiak antxe ito ziran

Eldu ziran Sinai mendira eta an egin eben Jainkoa'gaz ituna: eurak amar aginduak beteko ebezan eta Jainkoa beti izango eben erriaren laguntzaille

Gogoratu daiguzan Biblian agertzen diran itunak:Lenengoa atsegin-baratzean, Andreak zapalduko eban txerrenaren burua; bigarrena uriola aundiaren ostean Noe'gaz eta bake orren ezaugarri, geiago uriolaren ez dala izango ziurtatzeko zeruan agertuko da margo guztiak daukazan arku; irugarren Sinai mendian. Azkenengo onek alderdi biak beartzen dauz, Jainkoa erri-laguntzaille izatera era erria amar aginduan betetera: Ni zuen Jainko eta zuek nire erri.

Baiña betiko itun barria gurea da, Kristo'gan betirako egiña.

Sinai mendiko amar aginduak edo antzekoak inguruko erri guztietan egozan.

Ez dogu aitzu bear Biblia'k agertzen dauskuna ez dala Jainkoa zelakoa dan, erriak zelakoa dala uste eban agertzen dau. Ori kontuan dala ulertu geinke Jainkoa'k ejiptoarrak zelan urpean ito ebazan. Oneik be Jainkoaren seme-alabak,ziran.

Israeldarrak sinisten eben Jainkoa zigortzaillea zan eta zerbait gauza txarra jazoten jakenean, Jainkoaren zigorra zala esaten eben beti. Baiña ori ez da orrelan. Gauzak jazo egiten dira errien artean be, baiña ez zigor lez, alan-bearrez baiño.

Jainkoa agertzeak edo teofaniak (Abraam'eri, Moises'eri...) geiago ziran eurak barruan zomatzen ebezan aginduak edo deiak, gero irudiz jantzi bear izaten ebezan besteentzat sinisgarri izateko.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

### ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatziz bear.**

**Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**

# PROMETEO

## SARRERA:

GuIrakurgaien ekiñaldi bat, oraingo onetan kondairak gai dirala asten dogu. 46 kondaira izango dira.

Baiña zer da kondaira?

Berba au Larramendi'k asmatua dala diño, eta sinistekoa da, idazle ospetsu au itzak asmatzen zalea zalako.

Esangura bardin-antzekoa dauken iru itz ipiñi doguz alkarren parean, bat aukeratzeko. Oneik dira: Edestia, ipuiña ta kondaira.

Zein ete da iruretatik egokiena erderazko "leyenda" euskeraz adierazteko?

Ez edestia, au jazokizunak adierazteko erabilten da, erderazko "historia".

Ez ipuiña, onek balioko leuke leiendak adierazteko, baiña ez orretarako bakarrik, beste ipuin-mota asko dagoz-eta.

Orduan kondaira artzen dogu, leienda euskeraz esateko.

Zer da kondaira?

Aberrien asieran agertzen diran notiñak eta euren eginkizunak agertzen dauzan kontakizuna. Jazokizun orreik beti ez dira jazorikoak edo edestiak, baiña geienak sustraian egi aundiak eukiten dabez.

Aberrienak dirala esan dogu, ez laterrienak, baiña aberririk geienak alkartu eta laterri biurtzen dira, bakarrik edo beste batzukaz, eta orduan kondairak be laterri orren izenean agertzen dira. Grazia edo Erroma esaterako.

Euskaldunak ba-daukagu kondairarik?

Bai eta ez gitxi, esaterako Aitor, edo Asier edo gabonillentia, edo San Juan sua...

Ekiñaldi onetan ba, 46 kondaira agertuko doguz mundu zabaleko aberri askotatik artuta... Bakoitxaren azpian ipiñiko dogu beti zein aberritatik artuak dira.

## 1.- Prometeo eta sua (Erroma'koa)

Jainkoak ardura aundiz eskutatzen eutsezan gizonai euren isilpekoak. Orrelan auken Olinpo-mendian ondo gerdeta sua. Gizakiak ez ekien sua zer zan.

Zeus jainko nagusia bildur zan isilpeko ori gizakien eskuetara eldu eta aurrerapen aundiak egingo ete ebezan. Arroitu egingo ziran gizonak!



Baiña ba-egozan bigarren maillako jainko txiki batzuk be, Zeus edo Jupiter baiño apalagoak. Onein artean bat Prometeo zan.

Prometeo onek gizakiak makal ikusten ebazan eta errukitu egin jaken eta Zeus aundiari gizakientzat sua eskatu eutson. Baiña onek gogor erantzun eutson ezetz.

Orduan Prometeo'k berak irakatsi eutsen gizakiai suaz zelan baliatu, baita sutegian burdiñea ateraten, tresnak egiten, lanabesak (atxurra, aizkorea, geziak, ezpatak, eta beste gauza asko) egiten.

Asarre bizia izan zan benetan, Zeus'ena gizakiak sua eukela jakin ebanean eta asarre ori biziagotu egin zan Prometeo'k emon eutsela jakin ebanean.

Arduraz ebillan Zeus, Prometeo zelan zigortu pentsatzen.

Baiña ez eban lortu Prometeo zelan zigortu pentsatzen.

Baiña ez eban lortu Prometeo zigortzea eta mandatari indartsu bi bialdu eutsozan Prometeori, au menperatzeko aginduaz, bere anai Epesto'gaz batera. Iru oneik mendperatu eben Prometeo eta Kaukaso-mendiko arkaitz sendo baten lotu eben kate sendo bategaz.

Sai edo putre (buitre) zar bat etorri jakon eta onek barrua dana jan eutson.

Baiña Prometeo'k oraindiño bizirik irauten eban eta urrengo goizerako barru barria sortu jakon. Barriro etorri jakon saia eta barriro barrua jan... Orrelan jarraitu eban Prometeo'k urteetan arkaitz aren gaiñean, baiña ez eban burua makurtu, ez eutson parkamenik eskatu Zeus edo Jupiter jainkoa aundiari.

OLAZAR'tar Martin'ek

## ESKUBIDEA'K

### SARRERA:

JAINKOA`k, gure ARIMA`k, ikertzailletasunezko gai Mundu onetan, BERA`k ipinitako lege-artera bialtzen gaitu, bear dogun tresneriarekin.

Tresneri aundiena, gure arrazoizko ARIMA`k dira, danok eskubide ta zor bardiñakaz gaituta. Eta ARIMA da NORTASUNA`ren giza-mailla emoten dauskuna

Eskubidea orregaitik, Nortasanarena da. Ardura be bai!. Errez da orduan ulertzea, Gai-Mundu onetan, ez dagoela eskubiderik zorrik gabe.

### ONU:

Mundu`ko bigarren atsekabezko-gudatik urten gendunean, eta zelako astokeri- ak egin ziran ikusita. mundu`ko nagusien artean, oartzen asi ziran, erri ta gizartearen eskubide guztiak zaindu bear zirala. Edozein arazo konpontzeko, beti borrokan ibili bearrik osterantzean, Mundu`ko gizarte guztiaren itxaropena oso negargarria izango zalako.

1944`an, Txina, Estatu-Batuak, Frantzia, Ingalterra eta Sobiet-Batasuana, Dunbarton`eko buruz-buruko alkar-izketan batzartuta, bidea emon eutsoen, Kalifornia`n berrogeita-amaika Nazio`en arteko San-Franzisko`ko Urian egin zan batzarrari, 1945`an Aprille`ko 25`etik, Bagilla`ren 26`eraño.

Batzen orren elburu nagusi-lez: Erri guztien arteko bakearen ziurtasunezko babesa izan zan. Nazioen artean, adiskidetasunaren berogarritasuna sortzea. Eta errien arteko lankidetasuna, Munduan ekonomiaren arloetan sortzen ziran arazoai, gizartearen, jakintzan edo giza-aldekoetan (humanitarismo) konpondu daiten. Eta gizon/emakumearen oiñarrikoko eskubideak berotu, aurrerantz benetan lortu daiten, danok demokrazi on-baten ezartzea.

ONU`ren erakundeko eskutitz ori 1945`an Urrilla`ren 24`an sinatu zanean, agintari guztiak eraikita geratu zan erakundea..

Gero, 1948`an, Nazio Batuetako Erakunde`en Giza Eskubidearen Batzordeak antolatu eta Paris`en batzartuta, Mundu onetako guztientzat, Giza Eskubidearen Adierazpena ogeita-amar lege-gai`etan, argitaratuta aldarrikatu eben, Abendua`ren 10`an. Espaiña`ren ordezkariak, artean zirala.

### ESKUBIDEA`k eta LEGEA`k:

ONU`ren Giza-Eskubideen aldarriketa ori, Ludi onek daukazan berezko lege-geetan oiñarrituta dago. Eta oso pozgarria da ori.

Adibidez: Bere zerrendako 28`n lege-gaiak diño. "Gizon/emakume guztiak, eskubidea daukiela, gizarte eta erri-artearen antolamentu on-bat ezarri daitela eskatzeko, eskubidearen askatasunak bete daitezkan, aldarrikapen oneitan esaten diran lez".

Zer gertatzen da baiña..... gaur egun eskubide guzti orreik ankanz-gora agertu daitezkan?

Ikustea baiño besterik ez dago, Erroma ta Godo`tarren menperatzaille asmakizunezko legeak, batzuegandik eten-bako alegiñean XVIII`n gizalditik laterritzen zirala, oraindiño bertan daukaguzelako. Berezko-legeen aurka-koak dirala ukatu ezinik.

Edestiari apur-bat begituta, errez ikusten da. Erroma ta Godo`tarren, bai-ta batzuen Katolikotasun edo edozein erlijioaren laguntzagaz batera, lenagoko asmakizunetan egon ziran gogoak, erri ta erriarrak indarkeriz batzangozko, gaurko Laterrietan dagozela.

Bai! Zesar`ek, erri ta gizarteak banandu daitezkan, maltzurtasunezko bidetik ibili ebazan "VENI, VIDI, VICI" esan orreik, Erdira-zaleko Laterritarrai, gaur, argi ikusten jakiela.

Gaur ori ikusteko, ez da iñora joan bear: Gu, "Erri-bat garala esan orduko". Espaiña`ko erdira zaleak: Eurak "NAZIOA`ren NAZIOA" dirala esaten dabe. Eta zer esan gura dabe NORKERI orregaz, eurak... JAINKOA`ren parekoak dirala? Baten-batek: "Geiegizko Neurri-gabeke-ria". Burua altzau barik esango eban.

Gure iker-lan bidetik atzeman emon geuntson Nazioa`ren itz-zentzuari, berezko jaiotzaren mailla-bat dala ikasita, eta ez dago gure almenean, zentzuzko zeaztasun orreitan aldatzeko aukerarik, berezkotasunaren adierazpenak diralako.

Gaur... zer esango leuke Estatu Batuetako lendakari izan zan Truman`ek eta beren denborako gizarteak, nai-ta berak 1945`an Dagonilla`ren 6`an Japon`eko Irosiman ta Nagasakin atomozko leergailluak bota, gaur, giza-eskubideakin sortzen jakunakaz? Bera eta bere denborako gizarte! ez ziran izan... gizartearen eskubideak sortu eban aundienetariakoak? Zer gertatu da Ameriketan?

Dana dala, gaur Munduan ikusten doguna eta Espaiña`n batez-be, sasi-jainkotasunezko menperatzaille zaleak, gero-ta geiagoko urduritasunean sartuta dagozela, aldarrikatu egiten dauazan sasi-arrazoi orreik, ezin dabezelako egiaaren arrazoizko maillan eutsi.

Euren esanetan, Trikimailluzko arrazoi asko ibiliko dabez, guzurak, guzurrez- ko sasi-arrazoiekaz izan ezik, ezin diralako itxura baten ulertu.

Orregaitik gagoz belaueraiño sartuta, sasi-arrazoizko lokatz artean.

Laterrien egokitasunak, arrazoizko itzarmen edo elkar-go bidetik lortu bear dira (ez dagoelako beste biderik). Eta azkera orreitan, goragoko elburu nagusiak lortu.

Sekula indarkeriz edo larderialdetik, unetxo orreitan, jaioten garan erri ta gizartearen eskubideko ardurak ezeztu egiten diralako.

Ekintza orregaitik, Or! gaurko gizarte arduragabeke-ria egokituta.

Gaurko Laterriak, ez dira zentzunezkoak.

**ATUTXA`tar Paul**

Zornotza`n 2005`an urtarrilla`ren 26`an

# ERAKUSLEETATIK SORTU ZIRAN ADBERBIO BATZUK

Aurreko artikuloei jarraituz, aztertu daigun zelan sortu ziran adberbio batzuk erakusleen laguntzagaz. Asteko esan bear dogu erakusleetako genitiboa (zeiñena dan) : **aren** *txapela* ‘la boina de él’ eta adberbioaren “inesiboa”, (non dagoen) : **an dago** ‘está allí’, itz berberak dirala, au da, **aren** genitibo jatorra **an** bihurturik inesiboan. Onela aitortu eben Schuchardt, Lacombe, Irigoyen eta Mitxelena jaunak. Orduan, itz berbera da genitiborako ta inesiborako. Bizirik daukagu oindik be, bizkaieran, **bat-en** ‘de uno’ ta ‘en uno’. Irigoyen eta Mitxelenak be esan eben **baten** zarragoa zala **batean** ta **batetan** baiño, naiz eta gero Euskaltzaindiak Iparraldeko **batetan** aukeratu euskera baturako. Irakurri dogu **baten** “arkaikoa” dala (au da, ez dala iñon erabiltzen gaur) ta ori guzurra da, beste euskalki guztiak lez euskera dan bizkaieran bizirik irauten dabelako. Baiña, betikoa, bizkaierako **baten** itza ez dabe aintzakotzat artzen, naiz eta zarragoa izan ta askoz be euskaldun geiagok erabilli **batetan** baiño.

Orrela ba, **aurneur** erakusle jatorretik urten dabe **oneren** ‘de aquí’ ta ‘en aquí’, **onerik** ‘de aquí’, ta geroago **onik** ‘de aquí’. Orduan, **oneren** ‘en aquí’ izan bear eban jatorrizko adberbioa inesiboan eta iñola be ez **amen/emen** ‘en aquí’, askoz geroago asmatu zana, au da, **aurneur** > **auni** > **au** aldaketa burutu zanean, forma barri bat asmatu zan inesiborako : **au** > **au-en** (**en** inesiboa) > **ab-en/eb-en** > **am-en/em-en**, letraz-letra, ‘en esto’ ta ‘en aquí’. Edozelan be, **amen/emen** onek ez dau oker aundirik eragin ez dalako esaten **amen-era**, **amen-erako**, **amen-erantz**, etab. baizik eta **onera**, **onerako**, **onerantz**, jatorragoak. Irigoyen eta Mitxelenak be ipintzen eben **emendik** baiño zarragoa zala **onerik**.

Deklinabideko zati aundi bat genitiboaren bidez osatzen da, onela : **bere-an**, **bere-z**, **neronen-gan**, **aren-gatik**, **amaren-gandik**, **onen-gana**, etab., naiz eta **aita-gatik**, **ama-gandik** nominatibo erako forma batzuk be erabili gaur. Orduan, **onerik** ‘de aquí’ **oneren** genitibotik etorri bear leuke, au da, **\*oneren-dik** forma zarragotik. Ez dogu ezagutzen baiña **\*oneren-dik** itzak bardin emon leike **\*onen-dik** aldaketa be, **onerik** legez.

Beste aldetik, **aureur** erakusle jatorretik **auri** > **ori** gaurkoa sortu zan. Amen be badagoz **orreren** genitiboa ta bizkaierako **orreri** datibo zarrena, **aureur** jator ori probatzen dabena. Teorikoki, asieran beintzat, **orrer-en** ‘en ahí’ izan bear zan adberbio inesiboa. Oar bat : **oneR-en**, **orreR-en**, **aR-en** itzetan ikusten dan **R** ori “organikoa” da ta ez “sufijoa” ez da be “eufonikoa”, au da, itz orreen benetako zati bat da. Horrela ba, gero izkiak galtzean, esan leiteke **orren** ‘en ahí’ aldaketa egin bear ebala erakusle genitiboak lez, baiña urrutirago joan da ta bakarrik **or** gelditu da.

**Orreren** itzak erakusten deusku **or** soilla asko jana dagoe-la, ta zoritxarrez ez daukagu bizirik **\*orrerik** ‘de ahí’ **onerik** lez. Badagoz **orreR-a** ta antzekoak **R** organikoagaz baiña **or-tik**, asko laburtuta. Alan be, ikusten dira **orren aundia** ‘tan grande como eso’ erako esaldi batzuk, **orren** erakusle genitiboa adberbioa bihurturik. Edozelan be, **or-tik** berriaren jatorrizko zarra, teorían, izan bear eban **\*orreren-dik** gero **\*orren-dik** eta azkenean **or-tik**.

**A(r)** erakusleak, ostera, **an** ‘en allí’ adberbioa egin dau, baiña esan dogu **ar-en** erakusle genitibotik sortu zala **ar-en** adberbio jatorrizkoa. Orrelan ba, **\*aren-dik** hipotetikoak emon dituz **andik**, **anik** eta **arrik** ‘de allí’ ta orretarako **R** ta **N** zituzan forma bat bear zan. **Ango** ta **arako** ‘de allí’ be, **R** ta **N** daukazen ezagutzen ez dogun **\*aren-go** jatorrizkotik sortu bear ziran.

Ikusi daiguzan oin **nor** eta **zer** galderazkoak. **Nor** nominatiboaren genitiboa **nor-en** da eta ortik **noren-tzat**, **noren-gatik**, **noren-gandik**, etab. bizidunentzako. Orduan, **\*noren-go** > **non-go**, **\*noren** > **non** (**aren** > **an** lez), **\*noren-dik** (**R+N**) > **non-dik** eta **nor-ik** egin al izateko etab., bizigabeentzako. **Non**-etik etorri leike **non-dik** baita be **noren-dik** itzetik, baiña bizkaierako **nor-ik** zarra ezin leike atara **non**-etik **R** bear dabelako. Baita be, **nor-a** ‘a dónde’ izan bear dau ta ez **norer-a**, bardin **nor-año** ta ez **norer-año**. Saiatu gara **\*norez** billatzen eta ez dogu iñon aurkitu. Iñork ezagutzen badau esan dagigula. Sarasolaren “Orotariko hiztegiak” eta “Euskaltzaindiko hiztegi batuak” be ez dakarre. Irakurri doguz : **neurez**, **geurez**, **berez**, **arez**, **onez**, **orrez**, **zerez**, **zeñez**, etab. baiña ez **\*norez**, aldatu zalako > **\*noez** > **noiz**-era. **Norez** galdu zan **noiz** billakatu zalako, ‘cuándo’ esanguragaz. **Nola** be, **noren-la** > **non-la** ta amendik > **nolan** eta **nola**.

**Zer** gelditzen jaku. Bere genitiboa **zeren** eta amendik **zein** nominatiboa, Lafon eta Mitxelenak be onartzen eben aldaketa. **Zeren**-etik, **zerengatik** > **zergatik** eta **zengatik**, bat **R**-gaz ta bestea **N**-gaz, biok bizirik. Onek probatzen dau len esan dogun **\*noren-dik** > **nondik** eta **norik** egiteko.

Guk, izenordaiñak, erakusleak, adberbioak etab. ikertu dituguz oartu garalako izkuntzalariak, filologoak ta Euskaltzaindiak ez dabelako egin onelako ikerketa sakonik ta euren “tituloak” lortzeko be ez dabelako onelako araso jatorrizkorik estudiatzen. Batenbatek egin bearko dituz.

Aitatu dituguzan gai oneen azterketak erakusten deusku sistema koerente bat osatzen dabela itz gutxi batzutatik asirik. Sistema onek erakusten deusku zelan joan ziran itz guztiak bata bestearan ondoan, euren sorreran alkarri lagunduaz, “puzzle” bat, naiko osoa, lorturik. Ondo oartzan bagara, argi dago oinarte esan dituguzan gaiak sortu ta garatzeko, gure antxinako euskaldun zarrek ez eben iñongo izkuntzaren premiarik izan, eurek bere kaxa asmatu zituezen zelan osatu aldaketa guztiak. Orregatik, esan daikegu oinarte aitaturako gaitan, ez dabela euskerak amarik izan, bera dala bere ama, ez deutsala beste edozein izkuntza bati ezer be zor. Ez dakigu aitzarik edo alabarik izan eban baiña amarik ez beintzat. Usten dogu garrantzi aundiko argudioak dirala aurkeztutakoak euskera bere-beretik sortu zala baieztatzeko.

Urrengo artikulotan aleginduko gara aditz-jokoa (conjugación del verbo) aurkezten zelan sortu ta garatu zan, bere kaxa au be, beste iñongo izkuntzetatik ezer be artu barik. Aditz-jokoak erakutsiko ta probatuko deusku, gai onetan be, euskerak ez daukala amarik beste iñongo izkuntza baten, dan-dana beretik asmatu dabelako. Orrela, millaka urtetan zear euskera sortu ta gorde daben erriaren berezitasuna erakutsiko deusku.

Iker Joseba Laka Guenaga

## DABID HUME (1711-1776)

Auxe dogu enpiristak edo zentzun-zaleak, geienak angland-errikoak, lortu eben filosofi-maillarik gorengoa lortu ebana, eta, ikusiko dogun lez, ez dago ain goi-mailan. Zentzunen bideak ez dau emon ondoren aundirik filosofiaren bidean. Gero, Kant aztertzen dogunean ikusiko dogu zelako alegiña egin eban filosofo onek olako mailla batera eltzeke, baiña Aristoteles´en antzeko bide batzuk artuta, ez zentzunen bidetik.

Hume filosofoa Edinburgo´n jaio zan eta bertan asi ebazan eskubide-arloko ikasketak, baiña oneik alboratu eta filosofia ta elertia ikastera sartu zan. Gero Frantze´ra ta London´era joan zan eta Europa´rik geiena ikertzeko aukerea be izan eban.

Adimena aztertzea da beronen lenengo elburua eta gero sartzan da oitura-iztia ta politika-arloa aztertzeke bizitzako gauzetara.

Jakituri guztiaren oiñarri beretzat giza-iztia edo antropolojia da eta ortik jotan da zentzunen filosofiara, bere aldiko anglandarren antzera, bizi-ikasiaz eta azterketa egiteko. Baiña danaren elburua ez da besterik praktika baiña, dana da gizakien zoriona lortzeke bidea. Eta zoriona lortzeke gizakiak errazoiketaz luzeak alboratu eta bizi-ikasi edo eksperientziatik bizi bear dau.

Artzen dauan zentzunen bideak ez dautso Hume´ri argitasun geiegirik emoten eta zalantzan, eszeptizismo osoan geratzen da.

Bere ustez, fisikak daukan besteko ziurtasuna daukan filosofia nai ba´dogu, ori lortzeke ez daukagu beste biderik bizi-ikasi edo eksperientziaren esparruan ibiltea baiña, zentzunetan aurkitu geinke olako ziurtasuna eta zentzunak izten daben gomutamen edo memorian, ez adimenean. Biziena zentzunak une beratan diñoana da, or sartzan dira irrikak eta biozkadak, baiña geratzen dan idea edo irudia ez da ain bizia eta ziurra.

Sentipenak bakoitxak bere nortasuna dauke, baiña irudimenak emoten dautse alkartasuna eta idea edo irudi biurtzen dauz eta ori egiteko, ideak alkartzeko, irudimenak iru bide artzen dauz: antzekoak izatea, alkarren ondoan egotea eta bata bestearen iturri izatea eta orrelan gure irudimeanak irudi edo idea korapillotsuak sortzen dauz.

Ideak, edo irudiak, berez banakakoak dira, esaterako lerroa, orrek irudi bat dauka.

Eta zer da Hume´rentzat kenketa edo abstrakziñoa? Ez da besterik idea edo irudi bat zentzunetara biurtzea baiña. Unibersalak izen utsak dira.

Filosofiak kontuan artu leiken irudimen utsa eta izatea bera zentzunetara daroana lenengoak dira eta or dagoz jeometria, aljebra ta matematikak. Eta orrei esa-

ten jake izatezko arazoak. Eta oneitan baieztapen edo demostraziñoak egin leikez

Egillea-egiña (causa-efecto) zer-ikusia ez daugu len-dik buruan, ez da a priori, ori be zentzunetatik datorren gauzea da, gauza bi orreik beti alkarren ondoan ikusten diralako, denporan bata beste baiña lenagokoa dalako eta beti alkarragaz doazelako sortzen da egille-egiña bikote ori. Gure ustez gauzea ez dau ondo argitzen, zeozer geiago da egille-egiña zer-ikusia.

Eta zelan eltzen da Hume norberaren buruaren ezau-gerara?

Gure aurreko mundua zentzunai or agertzen jake eta ortik jatorkuz zentzunen bidez ideak edo irudiak. Baiña zelan alkartzan da aurrean daukagun gauzea gure buruan sortu dan irudi edo ideagaz? Ori bizi-ikasiaz, eksperientziak ikasi bearko dau Hume´k. Eta ez Jainkoa ekarrita Deskartes´en antzera, orrelan oker eza- gutzen doguzan gauzen errudun be Jainkoa litzakelako.

Kanpoko mundua baieztatzearen arazoak ez daua urtenbideriok diño Hume´k, geure barruko izakereak eskatzen daua esan bear gauzak or aurrean egotea.

Eta norbera zer da Hume´rentzat? Gure burua ez da besterik artu doguzan idea edo irudi guztien pilloa baiña, norbera izatea gure kontzientziaren asmakizuna da. Eta ideen alkartzetik sortzen da, antzekoak diralako, alkarren ondoan dagozelako eta bata bestearen iturri lez agertzen diralako.

Azkenean, norberaren izatea be zalantzan, eszeptizismoan, geratzen da, "Hume gizona eta Hume filosofoa" ez datoz batera. Gizona bizi da, berba egiten dau, beste antzera gauzak egiten dauz. Orrelan filosofi au zapuztuta geratzen da gizakien arazorik beñenak argitzeke gai ez dalako.

Zer diño jokabideai edo moralari buruz Hume´k?

Ezagutzen-bidetik norbera ez da aurkitzen, baiña bai jokobidearen bidetik, gure irrikak eta gurariak aztertzen dogunzanean. Gure jokabide-arauak ez datoz burutik, ez datoz gure izakeratik, gure irrika eta egarrietatik baiña. Moralaren edo etikaren iturria atsegiña ta min eukitea dira. Onoimena atsegin jaku eta okerbidea samin dogu eta pozak edo saminak gidatzen dau gure jokabidea, orixe da morala, buru argiak jokera guztien otsein izan bear dau. Sinpatia edo sentipen bardiñak dauka emen garrantzi aundia: Alkarren antzeko gizonak altruismo edo besteai laguntzera garoaz.

Naimena ez da almen bat, jokabide bat baiña ez da, gure barruan dago sentipen ori eta ez da sortu guk nai izan dogulako. Orduan askatasunik ez daukagu, askatasuna ez da besterik bata naiz bestea egin geinkela uste

izatea baiño, baiña beti egiten dogu zerbaitek beartuta. Euki geinken askatasun-antzeko bakarra espontaneo, gura dogula, gauzea egitea da, baiña ez aukeratzeko almena.

Zer diño politikan?

Gizonak besteakaz alkartuta bizi izateko gurari bizia daukala diño eta bakartadea dala zigorrik txarrena gizkiarentzat. Berez berekoia izan arren, ba-dauka gizonak besteai laguntzeko guraria be. Ortik sortzen dira jaurlaritzak ona eta txarra zer diran esateko.

Eta erlejiñoan?

Antropolojia-ren barruan sartzen dau erlejiño-ara-zoa eta ez dau aztertu bear Jainkoa nor dan, gizakiak zelako erlejiño-jokerak daukazan baiño, eta orretarako bide bakarra bizi-ikasía, eksperientzua da. Orrelan erlejiñoa be filosofiaren barruan dago. Nondik sortu ete da Hume-ren ustez, erlejiño-giroko sentipen ori? Bakarbakarrik bildurretik, eriotzeari dautsagun bildurretik eta gaiztoak betiko nekeetan izango dirala eta onak betiko zoriontsu biziko dirala uste izatetik. Marka ori sartu eban Egilleak berak egindako lanean. Gure Hume sinisteduna da!

Erlejiño asko izan dira eta or nastatu dira sorginkeria, itsukeria ta gogorkeria. Benetako erlajiñoa nagusi

adimentsu ta ikusi-eziña dagoala sinistea da, baiña ez dakigu ori nagusiena dan ala menpean dagoan, ez eta bakarra dan ala beste lagun batzuk daukazan, zelakoa dan. Erlejiñoa bear-bearrekoa dau gizakiak baiña ez dauka oiñarri ziurrik.

Ikusi dogu noraiñoako makaltasunera jausten da alglandarren enpirismo edo zentzenen bidea, azken baten dana zalantzan geratzeno bidera.

Enpirismu onen Hume dogu punterengoa, baiña norberaren burua ba-dagoala be ziurtatu. eziñera eldu jaku. Azkenean dana zalantzara daroa bide onek. Kant etorriko da bide batzuk zabaltzera.

An jauzi, emen zutundu, filosofiak gizakiari pentsa-bidea azaldu dautso eta billaketa egiteko askatasuna emon be bai, gauza bi oneik lagun dirala, mundu moderno edo barriari oiñarriak ipinteko ilustratuen aldia dator, jakitunen denporea, eta oneik entziklopedia-ren bidez batez be, berba egingo dauskue eta gaur daukagun mundu barriaren sortzailleak eurak dira. Ez guk nai genduken modukoak, baiña sortzailleak.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

---

## EUZKO SEME ALABAK

Argiz eta biotzez  
apaindurik sortu zan  
erria lurrean,  
lorerik bikaiñenak  
gozartuz, egokiro,  
bizien artean.

Mendi orlei ta zelaiz  
apainduriko lurra  
egoan oinpean,  
atsegingarria zan  
baratzen dizdizera  
urdiñarenpean.

Ederra ta bakea,  
gogoz, alkartu ziran  
euzko izadian,  
jakituria dago  
izarretatik adi  
inguru guztian.

Maitasuna dario  
lurralde ertitsuak  
zeru-goi ertzetik,  
lur oro, dardar, dago  
eskeintza gozoetan  
biotz barrenetik.

Izadi bikain ortan  
gizadi argitsua  
agertu zan izez,  
giza seme-alaba  
urre bitxiz jantziak  
zoriontasunez.

Maitasun ta bakea  
ziran erri gidari  
zuzentasunean,  
izkuntz zoragarria  
erri dana onduten  
jakintza bidean.

**PAULIN**



# DOMEKA EURITSUA

Zemendian ez dakit zenbatgarrenean gagozan, dakidan bakarra da oean egoteko egun polita egiten dauala kanpoan euria dalako barra-barra. Gaur apur bat lo gehiago egin arren, Laukiz'era joan bear arrebea eroatera. Bertan ospatuko diran Lore Jokoetan parte artzailea da eta amak ezin dau eroan, alan da ze neuri suberte jat bete bein arrebearen auto gidaria izatea.

Goizeko amarrak dira, artu dot arrebea eta bagoaz Laukizerantza. Amar t'erdietan asten dira Lore Jokoak.

Oraindino denboraz ondo gabiltzanez goazen tabernara gozari kopu bat egitera, proposatu deusat arrebeari.

– Zer, Amaia, gogotsu zatoz Laukizera olerki bat ordu batean idatzi eta Lore Joakoak irabazteko?

– Bai, Asier, bai. Orainarte be ainbat sari irabazi dodaz olerkigintzan eta orrek zigurtasuna emoten dausta gaurko sariketea irabazteko.

– Ia ba, goazen Erico liburutegira berandu egin orduko

– Tira ba!

Sartu gara liburutegian. An dagoz andrazko bat eta gizonezko bat ate ondoan.

– Egunon, emen da olerkiak idatzi bearreko lekua?

– Bai, ala da. Sartu barrura, kendu jakea eta jesarri gura dozuen tokian. Bost minutu barru asiko zarie olerki bat idazten maai gainean dozuezan orrietan. Lana amaitzeko ordu bete dozue.

– I mutil, parte artu gura ba-jagok iretzat be aukera

Bai baina ni ez nok etorri parte artzen, arrebea ekarten baino. Gainera nik etxoat egunon olerkirik idatzi eta ez naiagok prest inoren aurrean erridikulua egiteko.

Amar parte artzaile jagozak guztira eta bat gehiago ez llegekek txarto, ori jakinik jesar adi i ere, ekin lanari....

Ia ba. Zer galdu gutxi jaukoat eta zer irabazi gutxiago. Zeozer egingo joat.

Asi da txapelketea. Ni maai ertzean nago. Arrebea ondoan eta ezagutzen ez dodazen beste zortzi lagun gure ondoan maai biribilaren inguruan, danak aurpegia zurruna baino serioago deukiela.

Bost minutu pasa dira. Amar. Ordu laurden eta ez dot deus idatzi paperean. Ezer ez dakian ikasle baten antzera nago azterketa-orriaren aurrean.

Nire ezkerrean Lauaxetaren aurpegia ikusten dot kua-droan, Orduña konturatu naiz Estepan Urkiaga Laukizen jaio zala. Gainera orain gagozan liburutegiak bere izena daroa.

Etsipenak jota nago. Inguruko guztiak ikusten dodaz idatzi eta idatzi, ni ostera geld. Alako baten asi naiz zeozer idazten. Lerro bi, iru, lau. Badoa gauzea aurrera. Gauza arraro bat somatzen dot neure baitan. Ez naz neure eskuaren jabe. Bapatean idatzi eta idatzi asten naz baina burua eta eskua ez dagoz uztarturik. Eskua bere kabuz joiala olerki au ikusten asten naiz paperean:

Danon kutuna zarean

LAUKIZ

Antziñako Lore Jokoen

Oiturea

Berreskuratzen

ZABIZ.

Inoz idorra ez dan

lur onetan

jaio zan Lauaxeta

Beraren gomutan

batu zarie berton

poesiaren magiagaz

egin gurean ainbat olgeta.

Atzera begiratu

negarra begietan

ezin kabituz.

Olerkari andi bat il eben

bereak pentsetan

ebana esatearren

Denbora aurrera joiala

esan bear dot berreala

Lauaxeta gogoan izan bear dala

gure euskal arimea biur ez daiten makala.

Zoritzarrez

Tamalez

Alabearrez

Ez dogu Lauaxeta bakarrik.

Laukizen ainbat

etxetan

dagoz

negarretan.

Olerkari andia dogu

danon aintzindari, gidari.

baina ez daiguzan aitzu

Beste ainbat gudari.

Danon odolez eta bertsoz

busti dalako Euzkadi.

Denborea emon dauste erreparatzeko be! Au ezin dot sinistu. Txarrena da ezin deusela inori esean, zorotzat artuteko besterik ez neban bear...

## IPUIN SARIKETA

Zinatu dogu olerkia ezizen bategaz, sartu gutun azal batean eta bagoaz danok kanpora. Epai maaikoe ordu bete barru emongo dabe emoitza. Bien bitartean arrebea eta biok bagoaz erriko tabernara, urduritasuna baretzeko ardauxu bat artuteko asmoagaz.

Zelan Amaia? Ondo joan jatzu olerkia?

Bai. Ez jat txarto joan. Nire ustez or kriston nibela egon da gero...

Gugaz egon direnetatik ainbat, sariak lortutakoak dira beste olerki sariketa batzuetan.

Beraz ez dago zer eginik? Zuk ez badozu ondo egin nik zer esan bear ete dot!

Jasandako sentzazio arraroaren barri ez deusat emon arrebeari. Lenengo eta bein ez ebalako sinistuko eta bigarrenez, zorotzat artu dagistan arriskua daukadalako.

Badatoz epaileak.

Ia lenengo saria aurtengo Lukizeko Lore Jokoetan: Zumetza ezizenaz sinatutako olerkia dogu. Bere izena: Asier Ojanguren Agirrelezpeiti.

Ene! Ori neu banaz. Arrebearen aurpegiari begiratu deusat eta arriduran arridureagaz sano zurbil ikusi dot gixajea.

Zorionak. Ikusten da orainarte be olerkiak idazten ibili zareana.

Bai (neure baitan: Bazenki) bai. Ez sarri baina jartzen naizenean seriotan iminten naiz.

Bagoaz etxerako bidean. Oraindinoko artega nago. Egun au oso berezia da niretzeako et dot eguno olerkirik egin eta liburutegian olerkia idazten as nintzanean izandako sentipen arraroa ulertezina da.

Eldu gara estera eta amak urten deusku atera.

Zer nok irabazi dau ba!

Eta arrebeak.

Asierrek. Parte artzera joan ez eta berak irabazi.

Amak.

Ez nekian olerkiak idazten ona zineanik.

Bai ama, zeuk jakin ez arren neure aisialdian ainbat olerki irakurri eta bateren bat be idatzi dot.

Dana guzurra, baina zeozer esan bear disimulatzeke.

Aitaren arda botilarik onena atara bearko da ospatzeke ezta?

Bai ama.

Ni barrutik pozik.

Berandu da ta banoa oera. Oean ostera loak artu ezinik nago. Altza eta liburuak dagozan gelara joan naz. Barriro irakurri dot saritutako neure olerkia. Alako baten konturatu naiz nik ez dakidala orren euskera ederrean idazten eta or agertzen diran ideiak papereratzten. Zoritxarrez eskolea aintzina itxi neban, arrezkero arean irakurri dot eta ezer ere ez dot idatzi neure denbora guztian zear.

Ezinegona daukot barruan. Uste dot Lauxetak berak idatzi dauala olerkia neure secuaz baliatuz. Bi sentipen batu jatez bapatean. Eromenean ajusten ote nagoen ustea eta poza beste alde batetik. Poza zergaitik? – esango dozue. Estepanen gorputza il arren Lauaxetaren arimea bizirik dagoelako. Bere olerkiak entzuten doguzan bakoietzean gugaz dagoelako. Ilezkortasuna lortu dau olerkien bitartez.

Gauza guzti oriek daukodaz gira biraka buruan. Loak artu aurretik zera pentsatu dot: “Bihar goizean Lore Jokoetan irabazitako txapela eta garaikurra, bera orain aurkitzen dan lekura eroango dodazela, bertan ilobiaren parean jartzeko beraren olerkiarekin batera”.

**Asier Legarreta**  
ZUMETZA

## EUSKERA NAPARROA ´N

Azkenengo EUSKERAZAINNTZA aldizkarian (LVI zenbakia) idazlan irakurgarri bat idatzi dau Amale Artzezluz gure lankideak, beste aldizkari batzutatik jakingarriak zeatz batuta.

Gaia Naparroa ´n zenbatek euskeraz berba egiten dauan da eta nik uste neban baiño askoz geiago dira.

Gaur ikastolak lan zabala ta sakona egiten dabe lurralde aretan eta uste izan geinke euskerea zabaldu egingo dala.

Baiña, beste alde batetik, Naparroa ´n bildurra dago euskaldun lez bakoitxak bere burua eraskusteko. Izan be, guda-ostean aurrean erabiliak izan ziran euskaldunak, asko baita eriotzaratuak eta bide-ertzetan lurperatuak, eta jazokizun ikaragarri orreik naparrai bildurra azurretaraiño sartu dautse.

Egia esan, bildur ori alboratzea lortzen dabenean, asko dira euskalzale agertzen diranak, umeentzat ikastolea nai dabena eta ikastolak sortzeko euren laguntza emoten dabena. Kontuan artzekoak dira “Naparroa oliñez” ekiñaldietan euren buruak erakusten dabenezak

Gaurko euren agintariak be, sarritan, lagundubearrean eragozpenak ipinten dabez euskal-jakintzazko ekintzak eratzen dabezenean. Lagundu, bai, laguntzen dabe. Oro ondo agertzen dau aldizkari beratan Erbiti ´tar Xole naparrak idazten dauan lanean, baiña zalantza barik, ez bear dan beste.

...

Ona emen garbi eta labur aterata, jakingarri batzuk. Irakurleren batek oker nagoala usten ba ´dau, pozik artuko neuke bere albisteak.

Naparroa ´n euskerea berbaz eta idatziz errez ulertzen dabena % 11 ´8 dira, guztiaz 68.000.

Naparroa ´n erreztasun barik euskera entzuna edo idatzia ulertzen dabena % 10 ´1 dira, guztiz 56 962.

Talde bi orreik batu ezker, 124 milla dira napar euskaldunak.

Asko dirala? Gitxi dirala? Beintzat itxaropena dira, baiña euskereak atzerantza egin-bearrean, aurrerantza eta bizkor egitea lortzeko euskaldun guztiak alegindu bear dogu. Alegin orretan daukagu gure itxaropena.

**OLAZAR ´tar Martin ´ek**

## LANTEGI BATEN (ZARATAMO'N)



euskera utsean betetan nebazan; baita egiten nebazan eguneroko lan guztien txartel orria be euskeraz betetan nendun. Taller eta toki bakoitzeko jefe edo burutzak euskeldunak ziran lez –naita erdaldunaren bat be egon–nire lanen amaiera ontzat artu eta euskerazko orriak pozik ziñatzen ebezan. Gero parora bialdu ninduen.

Lantegian Euskerazko ikasketak eskatu genduzan baña Madrilletik danari ezetza. Orduan Fabrika, Banku-etxe ta olako askogaz artu emonak euki genduzan Madrilletik esan euskuen lantegian euskeraz nai gendua-na egiteko eta Komiteko

### ZARATAMO-N OUTOKUMPU LANTEGIAN EUSKERAZ

Bizkaiko Zaratamo errian Outokumpu Copper Tubes S. A. lantegia dago. Lentxuago “Tubes” ez eban euki. Baita lenago Ibercobre ere izan zan. Eta urte asko ta askoan lendabiziko izena Pradera Hnos. izan zan.

Euskerea zala ta 1983ko agostuan asi eta 1984ko maietzararte, lantegian naiz ta bakarra izan, lantegiko beargiñen buru edo Jefe de Personal jaunari esanda, eguneroko bono edo parte de averías edo makiña eta tresna kaltetuen konponbide edo tolos-bearra-ren orriak



## EUSKERA




idazkaritzagaz batera neuk asmatuko bost letreru orreik, argazkietan dagozenak, egin genduzan.

Andik laisterrean Finlandiako Zuzendari jauna Zaratamoko lantegira bertoko fabrikako ekonomis-tearekin etorri eta danan eurrean esan ei eutson: letreru oneik egin dituezenari, nire zorionak emon egiozue.

Gero euskerazko ikaste-lekua be lantegian mar-txan ifinteko gogoagaz genbiltza zan lez, azkene-ko batzarrak, naita Eusko Jaurlaritza be tartean ibilli, 1994ko maiatzaren 9an eta 17an izan ziran. Gero uztailen be egin eta ille orretan tekniku, adminis-tratibo, ofizial eta espezia-listeren artean 137 persona euskerazko ikastarora fa-brikan bertan asi ziran. Gaur egun be euskerazko ikastarora fabrikan bertan jentea badoa.

Argazki oneitako iragarkiak edozein lantegi eta lantokik beretzako nai ba deuz, nire eskubide osoa orretarako dauko.

Jose Mariano Barrenetxea



## BIZKAITARREI BIZKAIERAZ

# AITA IBERO, NAPARRA (I)

## LENENGOETAKO ABERTZALE BATEN TXINPARTA

Ez dugu gaurkoa eusko abertzaletasunaren auspo ekintsu izan zan lekide au. Eta ez, zoritxarrez, ezagunegia ere, naiz-eta gure abertzaletasun berpiztuaren eragilerik pizkorrenetakoa izan.

Gizaldi onen IX'garrenean (orain 85 urte) il zitzai-gun, ideolojizko alerjiagatik eta amorrua ezin estali, bekaitzez aberritik urrutira uxatu zigutenen erruagatik.

Aren oroigarria, nere liburu apaletatik, pitxirik miresgarriena bezela jaso ta esku artean darabilkidan ezker (ta aren eriotz-urtemuga iraila'k l'ean danez) egokiera ezinobea iruditu zait ein ontako abertzale garai baten antzirudia berriztatuz merezigarriak gogorazi ta garaipatzea.

**Utzi ziguna: "AMI VASCO" liburutxo.**— Neurritz txiki, edukiñez aundi ta betetsu. Irurogei orrialde, nik daukadan aleak beintzat. gure anai-guda madarikatu aurretiko aldi aietan, gaztetxo nintzalarik, eskuetaratu zitzaidan liburuxka, aita Ibero ebanjelista'k idatzi ta agertarazia. Bai, nere gazte-eskuetara lerratutako lenengo idazkitxo aberkoia, zinki. Abertzaletasun-gaia tajuz ta iaioki arrotzen zuana, jakiña! Ta garai ontan eta nere adiñari begira, etzan aberri-gaietan eskolatzeko bide ta liburu merkeagorik. Gaur, bearbada etzukean eragin biziegirik izango liburu txiki onek gaztedi artean. Alde batetik, aldi bateko kristau-dotriña txiki aren moduko begiratuta aski gogaikarri. Eta bestetik, gai aberkoia, gutxika emana danez eta errazegi, jakiñegia iruditzen zaigulako. Orduan, baiña, etzan olakorik. Gauza gutxi genekien garai artan, nik bai beintzat, eta erri xe jatorrak nik ainbat. Eta tantaka eta aldiko eran emanak bear genituan lenbiziko aberri-gai berriak. Beraz idatz-abertzaletasunaren edatzalle edo "pionero" dalako zerbait Aita Ibero, sabindartasunez gaiñezka, Sabin'en oroipenopalkuntzaz ain sukartsu ta bioztoiki idatzitako liburuatarikoan ikusten danez.

**Liburutxo onen deitura ta eragiña.**— Orduko euskal esnabide-giroan, abertzale-ikasbide dan liburuxka onen irakurketak sikologiro markatu ninduan ni, eta nere bizialdi guztirako bai errotik koskatu ta xakitu ere. Izan ere, nere aurtzaroko abertzaletasuna, etxean sentierazia eta bizierazia, oiñarri berriz sutu, gotortu zitzaidan eta mami gozagarritz ornitu. Arrezkero, aita Ibero ez nuan beiñere aaztuko, ez sua darion bere liburu txikia baztertuko, ezago jaurtiko eta bai nere estimagarrizko gauzaki artean ederretsiena joko, dotriña xume baten

neurriko izanarren eta gaurko buru-eskema berriak pedagogi-sen gutxikotzat jotzen ba'dute ere.

Eta nik ba'dakit etzitzaidala nere soilki eragingarri eta errai'aku illugarri gertatu. Asko izan ziran liburutxo onek biotz-ikutuak, oso barrendik astinduak. Onengatik ezagutu ditu ainbeste argitaldi, baita euskerara itzulia ere. Au "Euskal AMI" deiturapean.

Liburuaren deitura arrigarria iruditzen zitzaidan, baiñan gero ikasi nuan gerkeria-izkuntzaren abedea erutzen duten lenengo izkiarekin eta azkenarekin sortutako izena dala, abertzaletasuna ulertzeko, aundizka bederen, asieratik bukaerara, bear zan guztia ematen zigula lerro aietan adieraziaz-edo, alegia. Eta asmoartutakoa argi ta garbi bete zuala ez dakioke ukatzerik.

**Aren bizi-goraberak.**— Abizen-izanez Goikoetxea ta Orokieta'tar Erramun. Iruña'tik urbil xamarreko Oltza udal-barrutiko Ibero'n jaioa dugu 1873 garren urtean. Buruñurdun-lekaidetzan oiturari jarrai jaioterriaren deitura edo goitizena artu zigun.

Gure lekaideak gazte-gaztetatik zekarren abertzalelera. Ta kementsuki aalegindu zan bere ardurapeko komentu-eskola txikian, kaputxino-kume ta praille-gai artean alegia, Lizarra'n batez ere, gure abertzaletasunari ta euskal kulturari atakak zabaltzen, kristau-apostolutza errikoia egiñaz. Bere jakinduri ta buru-argiagatik ezaguna zan, oso ezaguna. Au dala-ta, bein 1902'garrenean, bere gain utzi zuten eliz agintariak Aralar'eko Mikel aingeru deunaren irudi aurrean, Iruña'ko gotzaijauretxean, egin-bearreko itzaldia. Eliza jendez gaiñezka zegoalarik egin omen zuñan itzaldiketa gogoangarria, kristau-euskalduntasuna goralduz. Baiñan etziztuzten danek begi onez jaso lekaide arek eusko anaitasunaren alde jaulkitako esaldi mamitsñuak. Eta itzaldi-gaia, zenbait ataletan, legebidez zigorgarri zitekelakoan, auzitara eraman zuten. Epai-maiekoek etzioten lekaideari obenik aurkitu, ez errurik leporatu. Zenbaitetan etsaikerara, ordea, nabarmendurik gelditu zan. Arrezkero, kaputxino-komentuetan, kide zituan artean, zerion euskaltzaletasun biziagatik meritu aundirik irabazi zuanik ezin esan genezake.

**Udalerri'tik uxatua.**— Ta eldu ziran kargu-aukeraketa berirak komentuetan. Ordurako, Buenos Aires'eko EUSKAL ETXEA ikastetxetik arturik zuan deia, bertan zuzendaritza edo-ta irakasle-aulkia ba'zeukala-ta. Izterbegiz, ordea, iñorako ateak eta igarobideak itxi egin zitzaizkion gure lekaide aalegintsu ta jatorrari. Ta kax-

keriz, 1906 garren urtean, Euskalerrri'tik nora-ta Teruel'go Hajar deritzan erdal komentura bidali zuten mintzatzeko ezpal aundiko euskotar praille esanekoa. XX'garren gizaldiko abertzaletasunaren lenengo lekai-de erbesteratua izan zan. Ara igorri zutenek ezin irentsi zuten Aita Ibero'k biotzetik euskal irrintzia jaurtiz zerion ixuri aberkoia. Kristau-kutsurik gabeko gorrotoa artu zioten eta danen gogamenetik eta irudimenetik aaztu zedin eta euskalduntasunaren pekatu larria neke-ordaintzera erdallerri zokondoan baztertu zuten.

Etzan luzaro bizi, min-arragoan aztertua, garerdian il bai-zan, 36 urte besterik gabe. Izan ere, Hajar'en etzuan bere suzko biotzak maitasunerako arnasbiderik aurkitzen, okerka begiratzen zioten erdaldun artean, etzuan bere maita-su txingartsuarentzat girorik izaten. Eta eortzi ere, antxe egin zuten.

Anima-egoera erakatzaille izan oi da beti lanerako eta bizitzan aurrera egiteko, danok ez bai-gera berdiñak. Ta buru-makurtzeak, onartzearen siñalez, ez dio askotan biotzari onik egiten. Ona emen aren eriotzaren zergatia. Urteen erdoiak etzuan jan gure lekaidea. Bai, ordea, naitz gabeak, trixturak eta euskal bizigozo zurtzak.

**Illik ere bizirik dugu.**– Aldien kurpillak bira asko eman ditu. Hajar'eko komentura zankarteka ta oxpaka uxatu zutenak, kaxkarrak eta ziztriñak benetan, aienatu ziran eta aien izenak betiko galdu. Ez ditu iñork jadanik gogoratzen. Baiñan Aita Ibero ez da il, gogoz gure artean bizi da ezilkor, izenez eta eragiñez bizi ere. Onatx indartsuaren garaipena, illik ere bizirik jarraitzea. Aita Ibero'ren izena eta lan-egiñak ez dira suntsitu. Arek irakatsitakoak bizirik diraute. Sabindar-lerro luzetan, euskal abertzaleen Edestian, ortxe ageri izango zaigu beti Aita Ibero.

Oraindia'tar Xanti'k zera esaten digu, orduko idazki batean aipatzen dan au: “Bera ta berak ereindako azia lertu, zapaldu, ito naiez... goitik eta betik, ezkerretik eta eskubitik eraso zioten, atzerrira bota zuten, naigabez il zuten. Ta oraindik bere illobitik altxatuko ote zan bildurrez zeuden...” (Nere saloa. Aren illobiak ez ote luke oorezko bisitarik merezi izango? Erromes-txangoan, ikurriña zambulukatuz, aren zuaitz-kimu geranok illobira urbilduko ba'giña... Orra nere proposamena iñork aurre-ra eraman nai baldin ba'du.

EGAÑA'tar Gotzon

## EURIA TA EDURRA

Lurra, legor, egoan  
ta lagunak, arduraz,  
bizitza aurrean,  
siñisdunak otoika  
legorte ain aundian,  
dardaraz, lurrean.

Odeiak sortzen doaz  
zeru-goi urdiñean  
beraren berariz,  
urdiña ta laiñoa  
biak alkartu dira  
zorion gurariz.

Aizea, gogor, dabil  
zeru ta lur artean  
zerbait egin nairik,  
laiñoak baltzituden,  
Tximistondo dizdizka  
lurra aideturik.

Egunez eta gabaz,  
gero ta gogorrago,  
zaratak ortzian,  
gizadia, gora, adi  
euria itxaroten  
laiñoen aurrian.

Gogoz, ta gogor, dator  
euri zoragarria  
bake onenian,  
egiz, aintzagarri da,  
zeru-goitik datorren  
euria goizian.

Besoak zabaldurik,  
gora goraka, dago  
lur apala bean,  
euri ta esker ona  
biak alkartu dira  
lurraren gaiñean.

PAULIN

### BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\*



Bizkaiko Foru Alkandua  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Salla  
Departamento de Cultura

ALDIZKARI ONEK  
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

## AXULAR (1556-1644): GERO

Piarres Axular (Piarres Agerre Azpilikueta) Lapurdi eta Naparroa-ren bitartean dan Urdazubi'n jaio zan eta antxe dago gaur be bere jaiote-etxea.

Toki askotan ikasi eta jakituri aundia eskuratu eban eta Tarbe'n egin zan abade.

Sara'n egin eban bere artzain-lana 1600n. urtea ezkerro. 298 sendi ziran orduan saratarrak.

Ainbat urtetan berbaldiak eta oarrak idatzi ebazan ezer argitaratu barik, baiña askok ekin eta ekin egiten eutsoen eta azkenean lanak batu eta liburu eder bat osotu eta 87 urtekoa zala argitaratu eban. "Gero" ipiñi eutson izena, Jaunagana biurtzea gerorako ez dala itzi bear gogoratzeko.

Euskeraz idatzitako liburu guztien artean aiatuena da Gero.633 orrialde dira eta 60 ataletan banatuta dagoz.

Liburuaren gaia pekatariak Jainkoagana biurtzeko emon bear dauzan urratsak dira, asketika gaia.

Euskera atsegiña ta aberatsa dauka liburu onek eta liburuaren eta idazlearen inguruan idazle-talde aundi eta on bat sortu eban. Or daukaguz Sara'ko eskolea osotzen daben Etxeberri, Argaiñaratz, Harizmendi,, Materre, Haranburu, Gazteluzar...

Axular'ek ba-ditu akats batzuk, esaterako "zeren", "ezen", "zeiñek" eta olakoak, latiñetik artuak eta euskerearen izaerea nagikeriz baztertzen dabenak. Batez be bere jaskerea latiñari lotua da eta edozein baserritar euskaldunek zuzenduko leuke. Akats au sarritan agertzen da orduko idazleengan.

Manuel Lekuona'k "GERO" liburu oparoa dala diño, bai gaiz eta bai eraz, bai mamiz eta bai azalez.

Eredu eta maixu dogu Axular, egia da, baiña ez dogu artu bear itsurik, akatsak alboratuta baiño.

Gaiari buruz, ez dala berak asmatua esan bear, sasoi aretako idazleak sarritan erabilten eben gaia da. Batzuk ba-diño Fran Luis de Granada'ren "Oración y meditación" liburuaren antz aundia daukala.

Ipuin batek diñoana da Salamanka'n ikasle zala entzun ebala Axular'ek leiza-zulo baten txerrenak irakastaldiak emoten ebazala eta ara joan zala bere jakituri aundia lortzeko eta Txerrenak beraganatu egin nai izan ei eban eta bera eskuratu ez arren bere itzala, gerizea, eskuratu ebala eta orregaitik izan zala Axular itzal gabeko idazlea bere bizitzan. Berak iges egin eutson txerrenari, baiña ez bere gerizeak.

Sara'ko eleizan gomutaki bat ipiñi eutson Luis Luziano Bonaparte'k Axular'eri eta itz oneik irakurri leikez an gaur be:

"Pedro Axular  
euskaldun izkribatzaileetatik  
iztun ederrenari,  
nik,Luis Luziano Bonaparte  
euskerazaleak  
au ipiñi nion.  
Ez dago atsedenek  
eta odei gabe egunik  
zeruetan baizik.1865.

OLAZAR'tar Martin'ek

### EGALPERRA (AVESTRUZ) ETA PIZTIAK

Egalperra edo abestruza da egaztirik aundiena: 2'50m'ko goierea dauka eta eun kiloko astuntasuna.

Ezin leike egaz egin, baiña zelaietan piztirik bizkorrenak baiño ariñoago egiten dau: orduko 60 km.

Egalperrak eta jirafak edo sama-luzeak zebrakaz edo zaldi nabarrakaz batera ibiltzen dira guztien begiratzailleak ba'litzakez lez.

Burua goian daukalako, etsaiak urrutira ikusten dauz, orregaitik egalperra iges doanean, an doaz zebrak be beragaz batera.

Rinizerontek tona ta erdiko pisua dauka, narru lodia ta tximurtua eta topeka be ona da. Ikusmen laburra dauka eta orregaitik errez erasoten dau gizona. Ba-dauka indarra kamioa bota edo bere bidetik aterateko be.

Kabo'ko auntza, idien antzekoa da, ez auntzen antzekoa. Ibilten bizkorra eta beronen umeak arriskuan dagozanean, bildurgarria da eta leoiak eurak be ilteko almena dauka.

Grant orkatza polita da eta Kenia'n bizi da. Leoien janari izaten da. Ille batzuk igaro leikez urik edan barik.

OLAZAR'tar Martin'ek

## ZER DIRA? NON DAGOZ?

Egaztiak zer diran jakiteko olako mailletan sartuko geunkez: Pizti bizkardunak, odol berokoak, lumaz jantziak, besoak ego biurtuta daukezenak eta arrautzak egiten dabezenak.

Euren azurak ariñak eta barruz utsak dira, egaz egiteko. Egazkiñen aluminiozko odien antza dauke. Leonardo da Vinci'k egazkiña asmatu nai izan ebanean (XVI gizaldian) egaztien antzeko tramankulua asmatu eban.

Lumak ariñak bai, ba-dira, baiña oso gogorrek eta alkartu eta batu egiten dira kremalleraren antzera.

(Imagen: ZER DA)


Guk txoria kaiolara sartzen dogu baiña geu gizakioak gara kaiolan gagozenak, egazik ezin egin dogulako. Txoriai emon jake guri emon ez jakun askatasuna: egaz egin eta an doaz mendira naiz ibarrera.

Luma ederrai eskerrak, arriku guztiai iges egiten dautsee, naiz azkonai, naiz lazuai, naiz perdigoiai naiz sareai; eta, batez be, beste pizti batzuren erpai.

Guk egunero ikusten doguz txoriak egaz basamortuetan, urietan, motor-zarata-artean, baita antartiko zabaLEAN bertan be.

Txoriak egun argia dabe maite. Gitxi dira gau-zaleak, alan kolibria, txoririk txikienada berau, baiña segundo ko 50 aldiz astintzen dauz egoak.

Ituna litzake txoribako mundua, ain dira apainduak!, ain abeslari onak!, oitura asko eta ederrak daukez eta



bakoitxa bere lekuaneta eginkizunean dabiltz. Bat bera be ez dago kaltegarrik!

...

Non bizi diran?

Urietan bizi-lagun doguz ormatxoriak, usoak, zozoak eta artatxoriak.

Landetan txantxagorriak, txepetxak, belak, mikak eta eperrak.

Baiña Afrika'n edo Amazonas ibai-inguruan orreik ez dira ezagunak. Afrika'n papagai koloretzua daukagu baita ketzal apainduak, pintarda luma-tsua, ankaluzeak....

Ameriketan papagai buztan-luzeak, ondartzetan ibisak, kolibri txikiak.

Japon'en oneik ez dira ezagunak, beste batzuk dagoz...

Etorri egiten dira gure ondartzetara txankaluzo edo flamenkoak, txirriñak eta zaldunak, urtero munduari bira osoa emonda.

Kai guztietan daukaguz itxas-txoriak

Australian eta Ginean paumeak dagoz abelirak, Amerika beroan anturanak.

Lurralde beroetan dago mota geiago, zomorro geiago dagoalako, baiña lurraren ardatz-buruetan be ba-dagoz egaztiak. Artikoan aateak, eta lepazilloak, kaioak. Antartikoan, martiñak ugari.

Geienak leorrekoak dira, baiña ba-dagoz itxasoan bizi diranak be, esaterako sangak eta ekaitz-txoriak, baiña guzti oneek arrautzak egitekoeta txitak aterateko legorrera etorten dira.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

## AFRIKA

### Orma zaarrak

Aizkoreak ikutu bakoak diran basoetan, sarritan orma zaarrak aurkitzen dira, antxiñako erriak, jakintza zaarren lengo bizi-lekuak.

Rodesia'n dago olako geien. Eskuz landutako granito arriz egiñak dira.

Asieran feniziarrak egindako etxeak zirala uste izan zan, baiña beste toki batzutan aurkituakaz konparatuta, gure VI gizaldikoak dirala diño jakitunak.

Beste alde batetik, bertako biztanleak be euren ipuiñetan ez dabe emoten arazoa argitzeko argi aundirik.

### Elefanteak

Pistien artean errege izatea merezi dau, errodunen artean indartsuena dalako, balearen urrengo.

Iñork ez dautso erazoten, nagusi da.

Gozonari baiño besteri ez dautso bildurrik eta orre-gaitik iges egiten dau. Ura dagon lekurra urreratzen da.

Asia'koak baiño aundiagoak dira Afrika'koak: 7 tona'ko pisua eta 3'70 neurkiñeko goiorea dau.

Bere agiñak marfilla dira. Eiztariak izan dauz beti etsai eta galtzeko arriskuan egoan, baiña gaur legea dauka alde. Marfilla berez ildakoetatik ateraten da. Lenago esaten zan elefante guztiak ilteko toki batera joaten zirala eta toki batera joaten zirala eta toki orren billa ibilli dira batzuk, baiña ez da orrelan, sukarraren beroa kentzeko uretara urreratzen dira ilteko orduan.

Emeak umeakaz ibiltzen dira. Oneik eta agiñeko miña daukenak dira bildurgarriak gizakientzat.

IBILLALDI LUZEAK EGITEN DABEZ JANARI BILLA: Egunero 250 kg. janari jaten dauz eta 200 litro ur edan.

Iñoz ez dira itxunduten, jagitea gaitxa jakelako. Zutunik egiten dabe lo.

Afrika'koak ez dabez eroaten zirkuetara.

**OLAZAR'tar Martin'ek**



---

# AMERIKAK

---

Europa'ko merkatariak arazo aundi baten aurrean aurkitzen ziran, turkitarren zergak aundiegiak ziralako eta ontzi-jabeari emon bearreko ordaiña be aundia zalako. Asira'ra bertara joatea nai eben arazo bi orreik beste era batera bideratzeko

Lenengo leorretik artu eben arako bidea baiña Istanbul'en turkitarrak ez eben biderik izten.

Atlantik-aldera itzuli ziran eta Afrika'ren ertzetik jarraitu, ortik biderik ete egoan eguzki-aldeko urrea ta espeziak ekarteko. Portugal dar bulartsuak izan ebezan lagun eta Basko de Gama'gaz eldu ziran Arabia'ra. Andik, bertakoak lagun ebezela, Kalkuta'ra eldu ziran. Orra or sortaldeko gizonak India'n.

Baiña beste askok itxaso zabalera begiratzen eben. Mundua biribilla zala iñoen ordurako. Zergaitik ez Sortaldera joan, baiña sartaldea itzi bagerik, aurrera ta aurrera?

Eman agertzen jaku Kolon benetako itxas-zalea.

Kristobal Kolon Genoba'tarra ei zan eta mapagille ona. Zabal ebillan itxas aundi orren ostean lurralde aundi-zabal bat egoala eta Kolon'ek uste izan eban, lurralde ori sortadea bera izango zala, baiña beste alde batetik begiratuta. Txina eta Japon izango ziran.

Ara joateko asi zan, korterik korte, laguntza billa eta Portugal'eko II Joan'ek ezetza emon eutsonean, Espaiña'ko kortera jo eban. Fernando'k eta Isabel'ek arazoa aztertzea erabagi eben. Erregiña egoan beroago erregea baiño. Isabel'ek dirua batu eta Kolon'eri eskua emon eutson.

1492n. urtean. dagonillaren 3n. egunean Palos de Moger kaitik urten eben iru ontzi ospetsuak: La Pinta, La Niña ta La Santa Maria. Kolon joian almirante La Santa Maria'ko kideakaz. Bidea luze egin jaken eta euskaldunak aurrez jarri jakozan berak esandako leguak eta geiago eginda egozalako. Baretu zan euskaldunen matxinda au baiña legua geiago eginda, guztiak egin eben bat euskaldunakaz eta Kolon larri aurkitu zan, baiña iru eguneko epea emon eutsoen eta epe oerretan jazo zan jazotekoa: LURRA! Mundu barria agiri zan!

Guanahani edo Salbatore ugarte zan. Ara sartu ziran eta bertakoak ongi etorria emon eutsen. Kolon ziur egoan axe zala India. Espaiña'ko erregeentzat lur-jebe egin eta anegaztiak, abereak eta lanadara bakanak eta inditarren bikote batartu erregeai erakusteko eta biurtu egin zan.

Apurka jarraitu eben lur barri aren neurriak artzen: Ameriko Bospuzio joan zanegoalderantzaeta beronen izena artu eben lur-barri areik, Balboa joan zan Panamaldera eta beste itxaso aundi bat aurkitu eban sartaldean,

bare-barea, eta izen ori ezarri eutsan, Pazifiko edo Barea.

Geroago beste ontzi batzun buru zala Magallanes joan zan Ego-Ameriketara. Atlantik Itxasorenertzetik gaurko Magallanes lur-musturrera eldu ziranean, aurrean eukan Barea esan dautsagun itxaso zabala.

Nekeen nekez, goserik ikaragarriena ebela, jarraitu eta Pilipiñetara eldu ziran. Euretariako asko an il ebezan, ontziak zapuztu eta galdu ebezan, eta bat bakarra eldu zan Espaiña'ra, Getaria'ko Juan Sebastian Elkano'rena. Oneik, iru urteren buruan, lenengo lur-bira osoa amakitu eben.

Or amaitu ziran eztabaidak: Lurra biribilla zan eta Kolon'ek aurkitutako lurak ez ziran India, Mundu Barri bat baiño

Ernan Kortes'ek Mexiko aurkitu eban, Azteka- Erri aundia eta Pizarro'k urrezko etxeak eukezan inditarrak zirala entzunik, itxasoratuta, inka'en erreñua aurkitu eban, Kuzko menditsuan zan erri eguzki-gurtzaillea. Uriburura sartu zan bere gudariakaz eta amaika etxe eder, kale bardin, enparantza zabal eta etxaundi urrezta-tuikusi ebazan. Ango erregea be euren esku jausi zan eta bizia galdu ez egian areto eder bat urrez beteteko, eskua jasota urrearen gaiñera eldu eziñeko moduan, eskatu eutsen. Ori egin eban Atualpa Erregeak, baiña urrea kendu, nai ta nai ez bateatueta gero erail eta zerura bialdu eben. Il aurrean Atualpa'k esan eutsen: Espaiña'tar guztiak ez egozala Espaiña'ko erregearen alde, esaterako euskaldunak.

Billatzailleak aurrera jarraitu eben eta Ipar-Amerikara be eldu zira, Florida'ra eta Missisipi Ibai aundira.

Billatzailleakaz batera erlejiño-gizonak bialdu ebezan Espaiña'ko Erregeak

Eta amaika katedral eta eleiza eder egin eben.

Ezinamaitu lan luze au, argi ta garbi esan barik, ilketa ikaragarriak egin ebezela ara joan ziran billatzailleak eta munduan izan dan enda-erailketa edo jenezidiorik aundienak egin zirala lurralde luze ta zabal areitan. Ameriketako inditarrak parkezke bizi bear leukee Espaiñatarrak, naitz noizean bein eurak be erantzun gogorra emon, esaterako "Gabon-Gotor" edo "Fuerte de Navidad" aretan egozan espaiñatar guztiak erail ebezenean. Au aurreko ilketa basati bateri erantzuna izan zan, euren urrea dana kendu eta orretarako euren ume bat ilteko zemaia eginda, espaiñatarrak jokatu ebenean.

OLAZAR'tar Martin'ek

## XII.- PIZTIAK ETA ABEREAH:

### Bizkarrazur gabeak

Orain-artean aztertu doguzan piztiak bizkarrazurdu-  
nak izan dira, beste pizti asko eta asko dagoz bizkarre-  
ko azur luze eta zatidun ori ez daukenak. Asi gaitez  
txikienetatik.

Piztirik txikienai lenengo bizidunak eta "proto-  
zoo"ak deritxe. Onein gorputzak kizkin edo zelula bakar  
bat baiño ez dauko, onein artean dagoz amibak, sasi-oin  
batzuren gainean dabilzanak. Batzuetan zulgileak dira  
eta karezkoa dauke azurdura, errodnak barriz ez dauke  
kartilagoa baiño beste azur-antzekorik, paramezioak  
deritxenak uger egiten dabe karelez edo alboen bidez,  
zigordunak, aurrera egiteko zigor edo katxaba antzeko  
bat dauke.

Belakia edo esponjea, itxasokoa edo ibaiko izan dai-  
teke.

Sabel-utsa, narru edo azal bi dauzan saku-antzekoa  
da, sabelak zulo bat dauka kanpora.

Idrak: ur gozoetan bizi dira eta ez dauke urdail berei-  
zirik.

Koralak urdail berezia dauke eta euren artean dagoz  
anemonak, medusak eta aurelia.

Arrak edo kotxoak: batzuk eraztun-antzekoak dira,  
beste batzuk lauak, euren kontura bizi diranak eta inoren  
kontura janaritzen diranak. (bizioak, solitaria), beste  
batzuk biribillak dira eta azur gogorrezko narrua dauke.

Gaztaika narrudunak: itxasokoa dira eta euren gor-  
putza oboa edo biribilla da.

Itxas-izarrak: bost beso edo adar daukez, beste  
batzuk pelota-antzeko gorputz biribilla dauke gainean  
arantzak dauzala.

Ofiura edo zuge buztandunak, gaztaika-motakoak  
dira.

Soinberak gorputza maskorrek estalduta dauke eta  
ibilteko oiñak: lurtarrak, itxastarrak, esaterako lapak,  
xafalak euren belarriakaz, atxurlariak, ostrak, aitzu zula-  
tzen daben zorrotzak, txirlak. Buruoinak: olar-  
roa, belarri bi dabez eta lau edo zortzi beso, txipiroiak  
zortzi beso txibiak amar beso, nauiloak lau belarri.

Oin-ostoldunak: lau bikote anka.

Eun oindunak: gorputza eraztun antzekoa eta anka  
asko, sardiña-kotxoak.

Oskoldunak: maskorra dauke, bular-aldean amar  
anka, esaterako ibaietako txangurrua.

...

#### Zomorro edo mamorroak (insektoak)

Onein gorputzak burua, bularra eta sabela ditu eta  
bularrean iru bikote anka eta sarritan ego bi.

Saltamatxiñoak eta kilkir edo grilluak antz-aldatze  
osoa egin bagekoak dira eta egoak zuzen eta galdi dau-

kez. Kirio egodunak lau ego daukaz, termes, esaterako.  
Zorriak ego bako zomorroak dira, marmota barazki-  
jalea, baba-zorriak, idar-zorriak, pipia edo sitsa.

Baiña antz-aldatze edo metamorfosis osoa egin dabe-  
nak askatasun geiago dauke eta egoak bizkor erabilten  
dabez: Lau ego izaten ditue eta laurak antzekoak eta  
kirio eta zaiñakaz.

Tximeletak edo mintxiak. Oneik ogeita amar izen  
daukez euskeraz. Motak: Argikoak, illunetakoak.

Eztendun egalariak: Lau ego daukez alkarren antze-  
koak, baiña agoa milikatzeo egokitua eta sabelaren  
azkenean dauke eztena, erleak, esaterako edo egodun  
iñurriak.

Beste batzuk ego-bikoak dira: eulia, tse-tse eulia, euli  
aundia, eltxoa, euli orlegia.

Milloi bat inguru dira mamorro-motak eta zoraga-  
rriak, arrigarriak dira. Lur-bira osoan nagusi dirala diru-  
di. Alde guztietan bizi dira, naiz basamortuan, 40° ko ur  
berotan, edurtzetan, arriorio edo petrolioan be bizi da  
bat. Ordu batean 25 km. egiten dabez batzuk. Kakarral-  
doak bere pisua baiño 850 aldiz aundiagoa dan pisua  
eroan leike.

Askatasun osoa ba lebe ugaritzeko, antxiña bota  
izango eben gizona mundutik, baiña euren artean burru-  
ka dago eta onurakorrek diranak jan egiten dabez kalte-  
garriak.

Km2 bateko lurrean bost milloi mozorro bizi dira.

...

#### Erleak

Amabost milla erle-mota dagoz eta batzuk bakarrik  
bizi dira, beste batzuk taldeka

Erdi-ugarte onetan milloi bat erle-ontzi inguru dagoz  
eta bakoitzak urtean 8-15 k. ezti emon leikez.

Erregiñeak bakarrik egiten dauz arrautzak erle-  
ontzian eta eundaka batzuk erle-mando bizi dira eta erle  
langilleak millaka batzuk. Erregiñeak egunean 3 000  
arautza egin leikez eta lau edo bost urtean egiten dau lan  
ori urtean 150 egunetan arrautzak ipinten dauzala.

Erle langilleak euren lan-saillak daukez. Lore-eztike-  
tariak goizean goiz joaten dira eta bakoitzak zazpi gra-  
motik gora ezti egiten dauz. Beste batzuk garbitzen egi-  
ten dabe lan. Oneik bero dagoanean egoan aztintzen  
dabez argizaia urtu ez daiten. Beste batzuk ataria zain-  
tzen dabe.

Loreak dauan usaiña bera artzen dau eztiak.

Mamorro bat dago oso-eztizalea eta au gabetan joa-  
ten da erle-ontzietara, baiña laster ilten dabe. Erle-txori  
pikuluze bat be ba-dago, erle asko jaten dauana.

Afrika'n txori kaskar batek gidatzen dauz basa-eztibilla dabilzanak. Ango ipuin batek diño erleak txori oneri kaltea egin eutsoela eta berak orain orrelan ordaintzen datsela. Orretarako ezitia nai dabenak zarata bat egiten dabe, txoria laster etorten da eta erleak dagozen lekura eroten dauz eta ezitia atera arte itxaron .Gero itxi dautsoen estia eta geiago jaten dauz.Argizaia bera be janari izaten dau.

...

**Tximeletak.**

Len be aitatu doguz ainbeste izen dauken mozorro oneik, baiña zerbait geiago esan daiguz.

Illebeta batzuk baiño ez da luzatzen euren bizia.

Lorez-lore dabiltz janari billa,eta eurretarike batek ekarten dau sedea egiteko bear dana. Oneko milla metro ari egin leikez.Txina'n asi ziran seda.-lana egiten gu baiño bi milla urte lenago.

Oso ederrak dira.

...

**Oskoldunak**

Udako arratsalde baten ikusi zeinke errekan pizti anka-luze bat. Esan lei ikurdia edo eskudoaz, lorikaz eta ezpataz jantzita doala gudara. Txangurrua da (cangrejo). Uger egiten dau baiña beti atzerantza.Gorputza estaltzen

dautson oskola aldatu be egiten dau,anka bat galtzen ba'dau, beste bat sortuko jako,neguan zulo batera sartzen da udabarrira arte.

Itxasoan be bizi dira oskoldunak:Txangurru bakartia oskolaren barrura sartzen dana, noka, otarraña.

...

**Soinberak**

Zer dira soinberak? Txipiroien sendia dirala esanda ulertuko dozu.Baiña itxaso sakonean bizi diranak 30 m. euki leikez

Izen txarra dauke, baiña begietan dauken dizdiragaitik da ori. Gizonari bildurra dautse eta ezkutatu egiten da.

Argonauta deritxonak buruan toki bat dauka eta abia izaten dau or.

Nautiloak bizi-leku zabalagoa nai dau.

Arlo onetakoak dira euria egiten dauanean lurreean bide zuria izten daben bareak eta marraskilloak be.



Beste pizti-mota asko dagoz itxas-ondoan, ikusgarriak eta arrigarriak. Ona emen izen batzuk:koralak, belakiak, marmoka,anemona, len aitaturako gaztaika, itxas-izarrak.

Beste barik amaitzen dogu pizti eta abereai buruz izan doguz ekiñaldi luzea. Eskerrik asko irakurri dozuena.

OLAZAR'tar Martin'ek

**EUSKALDUN BARRIENTZAT**

ZAZPI  
ERRUA



ABERE BAKOITZAK, ZER JATEN DAUN JAKITEKO, LOTU ZENBAKIAK BERE IZKIAGAZ.

KARMELE

**EUSKERAZALEAK**

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

# BBK

# txartelak



## **BBK txartelek opariak gordetzen dituzte**

Ordaindu erosketak edozein  
BBK txartelekin eta, hilerro,  
itzelezko opariak irabazi ahal  
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

**bbk<sup>2</sup>**